Irakurtzea gero eta gehiago kostatzen zaienentzako liburuak

Argitaletxeak Durangorako prestatzen ari diren kutxetan ere gazteenei zuzendutako lanak dira nagusi

:: NEREA AZURMENDI

DONOSTIA. «Gaur egungo haur eta gazte literatura penagarria da, zuzentasun politikoak dena izorratu duelako. Haurrei ezin zaie esan azkenean Txanogorritxu eta otsoa lagun egin zirela. Munduaren ikuspegi xarmagarria eman beharrean, haurrei esan behar zaie gauza onak, txarrak eta ikaragarriak daudela».

Hitzok ez dira ezein euskal idazlerenak, Ana María Matute Cervantes saridunarenak baizik. Euskaraz irakurtzeko gai izango balitz, pozez hartuko zukeen seguruenik Matutek euskal argitaletxeak Durangorako prestatzen ari diren liburuen parte handi bat, gero eta erreparo gutxiagorekin urruntzen baitira zuzentasun politikoaren eskakizunetatik, batez ere irakurtzea gero eta gehiago kostatzen zaien gaztetxo eta nerabeentzako liburuak direnean. Horren lekuko, azken asteotako liburu-uholdeak ekarri dituen hainbat titulu.

Aurrera segitzeko borondatea

Urtean zehar literaturaren alorrean argitaratzen diren tituluen kopuruari dagokionez, haur eta gazteentzako liburuek nagusitzen zaizkie helduei zuzendutakoei: 2008.ean, editoreen datuen arabera, 880-501 zifrak igo ziren 'markagailura'. Nahiz eta gehienak aparteko bultzadarik gabe heltzen diren merkatura, atzo sorta oso bat aurkeztu zuen Donostian Erein argitaletxeak, haurtzaroaren eta gaztaroaren arteko eremu iristagarri eta aldakorrean dabiltzan irakurle horiei zuzendua.

Beraien artean oso diferenteak izan arren, liburu guztietako protagonistek dituzte begiz jota dauzkaten irakurleen pareko adinak. Euskaraz eta gaztelaniaz aldi berean azaldu den 'Eneko Padurakoa' kontakizun historikoa –IX. mendean girotua, zehazki– salbu, denak dira gure egunotako kontuak, denetan azaltzen dira adinari dagozkion ajeei aurre egin behar dieten pertsonaiak.

Kinkarik zailenean, akaso, Miren Agur Meaberen 'Errepidea' liburuko protagonista Rigel dago. Karabana batean bizi da amarekin, han-hemen aldizkako lanak egiten. Etorkinak dira eta diru-arazoak dituzte. «Arazo horiei gehitzen zaie nerabezaroan ohikoa den errebeldia eta gurasoume arteko harremanen zailtasuna», azaldu zuen Miren Agur Meabek Aitziber Alonsoren marrazki ederrak dituen liburua aurkeztean. Rigelen izaeran sakontzean esan zuen «gaur egun politikoki zuzentzen jotzen ez diren zenbait portaera» dituela, «hala nola erretzea eta alkohola probatzea; edo animaliak ehitzatzea, edota grafitiak egitea».

Elementu sinbolikoz –bost puntako izarra, hegoa, errepidea...– betetako liburua orrialde gutxikoa da, doitasun-mekanismo baten moduko funtzionatzen du. Egitura konplexu samarra izan arren –hamabi kapitulu ditu, bost ataletan banatuta, narratzaile lanetan Rigel bera eta «protagonistaren begirale moduko batzuk» diren bost txori tartekatuz–, konplexutasun horrek, nahastu beharrean, gidatu egiten du irakurlea. Bidaia ez da beti gozoa baina, idazleak azpimarratu zuen moduan, «estualdi eta iluntasunaren azpian, pilpilka dago bizi-tankera probisional bohemio askearen euforia: errepidearen irudiak iradokitzen duenez, bidean beti aurrera segitzeko borondatea».

Gurutzebidean

Fernando Morilloren 'Azeri noblea' eleberriko protagonista ere neska gazte bat da, Onintza. Barru-minez dago, aldatzeko premia sentitzen du, baina ez daki nola. Azkenean, ero fama duen artzain batengana joango da eta, hark, xelebrekeriak xelebrekeria, neska gaztearen bizitzan aparteko garrantzia izango duten bi animalia aipatuko dizkio: arranoa eta azeria. Horiek ez, baina bi murtil azalduko zaizkio bidean: Agustin, ikasle unibertsitario indartsua, eta Iker, txikitako amodio galdua. Zein ote da bietan azeria, zein arranoa?

«Gazte batzuen dudari eta beldurrari buruzko istorioa» idatzi du Morillok, pertsonaiak adin horretako neska-mutilentzat ohikoak diren atakan jarrita. «Zalantzek erakarri izan naute betidanik idazteko orduan», azaldu zuen idazleak, eta horixe eraman du liburura, protagonista bidegurutzean jarrita: «Bizitzak bi su erakusten badizkio, nola asmatu? Su batek, beharbada, beroa eta argia emango dio. Besteak, ordea, litekeena da errauts bihurtzea». Nahiz eta 'Azeri noblea' ez den «gazteentzat soilik idatzitako testua», idazteko orduan ahalegindu da lehentasunezko irakurle horien ezaugarrietara egokitzen; liburua elkarrizketa bizi josi du eta traba gisa har daitezkeen guztiak arintzen saiatu da.

Autorearen esku-hartzerik gabe aurkeztu zen liburu bat ere bada Ereinen sortan, batik bat marrazkilari bezala ezaguna den Joxean Lopetegiren 'Hi haiz hi, pirata!'. Baditu 'Lope'-ren estilo nahastezina aldarrikatzen duten ilustrazioak, baina urriak dira testuaren trinkotasunaren aldean. Protagonista, oraingoan, mutiko bat da, Gillermo Bandera Beltz. Izen horrekin, nahitaezkoa du ezizena: Pirata. Bederatzi urteko mutikoa izanik, gainerako protagonistak baino gazteagoa da, baina hala ere ez da fikziozko umeen fantasiazko munduan bizi, maiz erruz konplikatzen zaion errealitatean murgildurik baizik. «Hau ez da haur-

Idazleak. Miren Agur Meabe, Fernando Morillo eta José Luis Urrutia, atzo Donostiako Konstituzio plazan. :: UNANUE

tzaroaren eskubideen deserrotze moralari buruzko nobela bat. EZ», dio, letra larri eta guzti. Zer den ere argitzen du: «Eguneroko ezbeharrei espiritu baikorrez aurre egiteko umeen ahalmenaz dihardueu liburu bat da, desio pedagogikoak gidaturik eta, batez ere, umore dosi handiz». Piratak eta bere lagunek etengabe jartzen dituzte agerian helduen kontraesanak. Egilearen ustez gurasoentzat ere oso gomendagarria da liburua.

Eta, itxura batean, liburuok guztiak izan daitezke oso gomendagarriak hartzaileen adineko neska-mutikoengan irakur zaletasuna sustatzeko. Zeren eta, behin amuari lotuta, zaillagoa baita ustez bueltarik ez daukan madarikazioa pairatzea eta, eskolak irakurtzera behartzen ez dituenean unean bertan, irakurtzeari erabat uztea.

Itzulpenen ekarpen garrantzitsua

Beste hizkuntza batzuetan arrakasta ziurtatu duten lanek ere badute tokia

:: N.A.

DONOSTIA. Kontuak ateratzen hasiz gero, beste hizkuntza batzuetatik euskarara ekarritako lanek pisu handi samarra dute Euskal Herriko argitaletxeek haur eta gazteei luzatzen dizkieten proposamenetan. Esan daiteke, klasikoez gain, azken hamarkadatako 'fenomeno' gehienei egin zaiela tokia euskarazko liburutegian, lehenago edo beranduago. Mende honetakoak izan arren klasikotzat jo daitezkeen Maria Gripe, Roal Dahl edota Cristinne Nöstlinger izen handien arrastoa aurki daiteke, esaterako, liburutegi horretan, antzeko mailara heldu diren beste askorenenarekin batera.

Azken urteetako fenomeno nagusiak ere heldu zaizkie euskaraz irakurle gazteei, hala nola, eta beste askoren artean, Harry Potterren bilduma arrakastatsua, Elkarren eskutik, edota, berriagoen artean, Planeta orbitako Destino etxea argitaratzen hasi den Geronimo Stiltonen abenturak. Izan ere, Estatu mailako argitaletxe handiek, testuliburuak alde batera utzita, segmentu honetan baino ez diote jaramon egiten euskarazko liburuari. Euskal idazleen lanak aurki daitezke noski euren katalogoetan, baina itzulpenen presentzia ez da kaskarra. Inondik ere, esanguratsua. Beste hizkuntza batzuetan arrakasta ziurtatu duten lanek, hortaz, badute tokia haur eta gazteentzako katalogo zabalean, baita azken boladako nobedadeen artean ere.

Greg gizajoa

Esate baterako, aste honetantxe aurkeztu du Alberdaniak liburu guztiz bitxi bat, 'Gizajo baten egunkaria' eleberri marrazkiduna, Jeff Kinney estatubatuarrak sortutako Greg Heffley hamabi urteko gizajoaren gorabeherak biltzen dituena. Gregek iraileko ostegun batean hasi zuen egunerokoa, itxuraz paper marradunean eskuz idatzitako testuak eta marrazkiak tartekatzen dituena, dagoeneko lauko sorta osatu duen bildumako lehena da. Ingelesez ('Diary of a Wimpy Kid') 2007.ean argitaratu zen eta gaztelaniara ('Diario de Greg, un pringao total') 2008.ean ekarri zuten. Web gune propioa du Gregek, eta filma ere bai, iragan urriaz geroztik. Euskarri horietan guztietan, modu bizibizian kontatzen du, gozagarririk gabe baina umorez, zein gogaikarria izan daitekeen nerabezaroa.

Nina engainatua

Adinean eta, Greg gizajoaren sufrikarioak gutxietsi gabe, biziko dituen esperientzien gordintasunean, urrats bat harago doa Nina, 'Ninak ospa' liburuko protagonista. Elkarrek argitaratu berri du, 2003an nerabeentzat propio sortu zuen 'Taupadak' saileko 'Bizi taupadak' azpisailean. Joxemari eta Maialen Berasategik alemanetik itzulia, Marliese Arold idazle alemaniar ezagun eta polemikoaren lanetako bat da. Ezaguna, haur eta gazte literaturan alemanez idazten dutenen artean goraipatuenetakoa delako. Polemikoa, gazteentzat idazten duenean ez dielako muzin egiten gai korapilatsuei: anorexia, bi nesken arteko maitasuna, hiesa...

Orain euskaraz irakurgai dagoen liburua 1996an argitaratu zen alemanez, eta handik gutxira gaztelaniaz, 'Nina se larga' izenburuarekin. Etxeko giroaz asperturik, irtenbidea gurasoengandik urruti dagoela uste du Ninak, Hanburg hiri handiak eskaintzen dion ustezko askatasunean, han aurkitzea espero duen bizimodu dirdiratsuan. Hanburgera iritsiko denean, ordea, ikusiko du adin txikiko, dirurik eta lagunik gabe, espero zuen etorkizun oparoa ez daukala zain autobusetik jaisten denean.

Hanburg bezalako hiri batek bere egoeran dagoen neska bati eskain diezaiokeena erakutsiko dion jendea –horien artean, zeharo liluratuko duen Jonas– ezagutuko du luze gabe Ninak, eta hasiera batean fantasia itxura hartuko duen ametsa amesgaizto bilakatuko da, ezer ez baita Ninak uste duena: ez zerbitzari lana, ez Jonas, ez Jonasen maitasuna, ez argazkiak egitera bidaltzen duten agentzia, non ez diren bakarrik egiten modari lotutako argazkiak. Zuzentasun politikotik urrun dagoen kontakizun gordina da 'Ninak ospa', irakaspenik gabea baina oso argigarria.

'ERREPIDEA'
Idazlea: Miren Agur Meabe. Ilustrazioak: Aitziber Alonso. Argitaletxea: Erein. Orrialdeak: 72. Salneurria: 8,80 €. Sinopsia: Estualdi eta iluntasunen pean, pilpilka bizitzeko grina.

'AZERI NOBLEA'
Idazlea: Fernando Morillo. Argitaletxea: Erein. Orrialdeak: 120. Salneurria: 12,50 €. Sinopsia: Onintza barru-minez dago. Artzain ero baten aholkuek emango diote zer pentsatuo.

'HI HAIZ HI, PIRATA!'
Testua eta ilustrazioak: Jose Angel Lopetegi. Argitaletxea: Erein. Orrialdeak: 164. Salneurria: 11 €. Sinopsia: Nola egin aurre eguneroko ezbeharrei umorea galdu gabe?

'ENEKO PADURAKOA'
Idazlea: José Luis Urrutia. Argitaletxea: Koro Navarro. Argitaletxea: Erein. Orrialdeak: 152. Salneurria: 13 €. Sinopsia: Abentura, historia eta mitologia.

'GIZAJO BATEN EGUNKARIA'
Egilea: Jeff Kinney. Itzultzailea: Miren Arratibel. Arg.: Alberdania. Orrialdeak: 218. Salneurria: 17 €. Sinopsia: Pertsonaia ezagunaren eleberri grafikoa.

'NINAK OSPA'
Idazlea: Marliese Arold. Itzultzaileak: Joxemari eta Maialen Berasategi. Argitaletxea: Elkar. Orrialdeak: 235. Salneurria: 16,50 €. Sinopsia: Ninak etxetik alde egin du bizimodu berri baten bila.

'Euskal mitologiako kondairak haurrentzat' bilduma sortu dute

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. 'Euskal mitologiako kondairak haurrentzat' izenburuko liburu sorta jarri du abian Elkar argitaletxeak. Euskal mitologiako zenbait istorio umeentzako moduko era atseginean eskaintzea da helburua, eta Jesus Mari Olaizola 'Txiliku' arduratu da testuak idazteaz. Marrazkiak, berriz, Jose Anjel Lopetegik egin ditu.

Bi eratara jari da salgai materiala: batetik, hiru liburuxka; bestetik, hiru horiek biltzen dituen liburua.

Bi protagonista sortu ditu Txilikuk, Nerea eta Julen anaia-arrenak, bata bederatzi urtekoa, bestea zazpikoa. Berauek dira kontakizunen gidariak. Ordenagailua piztu eta itzaltzearekin batera, nahastuko dira errealitatea eta fikzioa ipuin hauetan.

Lehenengo liburuxkak 'Arratsalde bat Marirekin' du izenburu. Euskal mitologiako jainkosa eta amandre horrek badaki itxuraz aldatzen. Maju du bere senarra, eta bi seme ere baditu: Mikelats gazteena, eguraldia menderatzen duena, eta Atarrabi, deabruak itzala lapurtu ziona. Indar magiko handia duen beste izaki bat ere bada liburu honetan: Sugoi.

Bigarren liburuak –'Kontuz gizakiekin' delakoak– gizakiak, laminak eta jentilak elkarren ondoan bizi ziren garaia kontatzen du. Gizakiek, artean, ez zuten ogi zuria ezagutzen eta Martin Txiki burutsuak jentilei garia lapurtu behar izan zien. Kondaira horiez gain, liburu honek Goñiko zaldunak Aralarko herensugea nola akabatu zuen jasotzen du.

Hirugarren alean –'Arraioak!'– beldurrezko hainbat istorio daude jasota: adibidez, bi anaia ehiztarik Tartalorekin topo egin zutenean gertatutakoa, edota katu itxura hartzen duten sorginen kondairak.

J.M. Olaizola 'Txiliku'-k (Zarautz, 1951) eskarmentu handia du haur eta gazteentzako literaturgintzan. 2005ean Euskadi saria irabazi zuen 'Osaba Bin Floren'-ekin. Elkarren bertan ari da lanean, testugintzan.

EUSKAL MITOLOGIAKO KONDAIRAK HAURRENTZAT
Argitaletxea: Elkar. Salneurriak: Istorio laburrek 8na euro balio dute. Hiru istorioak biltzen dituen liburu ak, 17.

El creador Micah P. Hinson.

El cantante americano Micah P. Hinson publica la novela 'No voy a salir de aquí'

:: IÑAKI ZARATA

SAN SEBASTIÁN. La afición musiquera vasca ya conoce a Micah P. Hinson. El cantautor usamericano (Memphis, Tennessee, marzo de 1981) acaba de estar actuando en Durango y lo hizo también en el Victoria Eugenia durante el Heineken Jazzaldia 2009. Antes, había debutado entre nosotros en el diminuto Gazteleku zarauztarra.

Micah repetirá concierto en ese mismo teatro donostiarra el sábado 8 del próximo mes de enero. Y vendrá con doble novedad: el nuevo disco 'Micah P. Hinson and The Pioneer Saboteurs' y su primer libro: 'No voy a salir de aquí', comercializado en castellano por la editorial Alpha Decay, de 112 páginas y que se vende a 14,50 euros.

Una 'nouvelette'

El propio autor define su debut literario como una 'nouvelette'. Un libro «menor» en cuanto a tamaño, una novela breve que refleja en prosa el particular mundo de ficción que P. Hinson ha dibujado ya con frecuencia en forma de poesías para sus canciones. Su ficción escrita se centra en las experiencias vitales de dos jóvenes que además de ser muy solitarios están enfermos y se consideran unos malditos. Y están enamorados, se aferran al amor como única ancla salvadora para sus necesidades de supervivencia.

Un libro, en consecuencia, que hace honor al carácter de este rockero anti estrella que salió a la superficie pública, con 23 años, con su primer disco 'Micah P. Hinson and the Gospel of Progress', editado en 2004. Antes, en el 2000, y siendo un habitual de los fármacos, pasó un tiempo en la cárcel, acusado de falsificar recetas de medicamentos; y tuvo una complicada vida posterior. No es casualidad que en su novela aparezca mucho alcohol, pastillas y tristeza. Reflejo novelado de su propia azarosa juventud.

La literatura como vehículo

El bilbaíno José Luis Urrutia ha firmado ya una decena de novelas, todas ellas de corte histórico, pero no se había decidido a escribir para jóvenes. Se ha estrenado por partida doble, ya que Erein ha editado simultáneamente en castellano y en euskera – 'Eneko de Padura' y 'Padurako Eneko', con traducción de Koro Navarro–, la novela en la que imagina un acontecimiento legendario desde la mirada de un joven del siglo IX, Eneko, que se ve envuelto en la batalla de Padura, que supuestamente se libró en Arrigorriaga, en la que los vascos, se enfrentaron al poderoso ejército astur-leonés. ¿Hay constancia histórica del hecho, o es una mera leyenda? A José Luis Urrutia no le importa demasiado la respuesta, porque «la intención principal no es impartir una clase de Historia, sino mostrar al público, especialmente al más joven, una parte de nuestro pasado». Para ello ha mezclado historia, mitología y leyenda y, para hacer llegar la mezcla a los lectores más jóvenes, la ha vestido de acción y aventura, convirtiendo la literatura en vehículo no solo de diversión y entretenimiento, sino también de conocimiento.